

## Gure irakasleak herritik kanpora?

Deia, 1977-09-03.

Atzo hemen genuen Iztueta-ren testigutza bat.

Iztueta-k salatzen zuen 1847an gure herrietako eskoletan gertatzen ari zena: euskeraz hitz bat ez zekiten maixuak jarri zituzten erderaz hitz bat ez zekiten gure mutikoei erakusten.

Gizonaren eskubideak ederki zanpatu dizkigute harrezkero.

Eta gaur ere!

DEIAn argitaratu da berria.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko 88 irakaslek hartu dute Madrid-etik ordena: Jaén, Granada, Málaga, Cádiz, Murcia, Albacete, Barcelona, eta oraindik urrutirago dauden irla batzuetara ere: Gomera, Hierro, Lanzarote eta Fuerteventura-rako destinoa.

Egiazko erbesteratze bat da hau.

Irakasle hoiek, emakumeak dira denak. Ba dituzte batzuk senarrak, seme-alabak; eta haiek lantokiak dituzten bezala, hoiek lagunarteak eta ikastolak. Familia lehertzeko bidea asmatu dute Madrid-en, eta hoietako eginak zituzten kursoak, elebietarako irakaskuntza buruan zutela, dena alferrik, ez baita han gure euskerarik behar.

Gureak harakoen truke, Espainia-ko herrialdeetatik ba datoz honera 180. Eta, noski: euskerarik gabe, eta, seguraski, berea den herria uzteko penetan.

Madrid-etik aurtengo kursoa hasi baino hilabete lehen, presaka, hartu dute ordena; batzuk ez dute oraindik jakiteko denborarik ere izan, oportetan baitira.

Hara hemen Madrid-en itxumenak gaurko exenplu bat behar bazuen, nabarmen eta patente dena.

Eta beste Autonomiaren aldeko erakuspen bat.

Nafarroan ez da honelakorik gertatu. Dituen Foruak direla-ta, Nafarroari ezin dio Madrid-ek honelako agindurik eman.

Gainera, hontaz, harritzekoa hau da:

Orain arte ez zen sekula hainbeste irakasle euskaldun etxetik kanpora bota. Aurtengoa omen da egin den nahasmen handiena, eta eman den agindurik larriena.

*Zergatik hau, modu larri hontan eta orain?*

*Orain*, ematen du ez luketela Madrid-eko agintariak, deszentralizazio, autonomi edo dena-delako honen zai gaudela, honelako agindurik presaratu.

Edo propio egina da.

Iñigo Caverro donostiarra da jaiotzez, ezagutzen du ondo gure egoera kultural eta politikoa, eta ezin dezake honelakorik gure herrian gaur egin.

Hemen ikastolan hasiak diren umeak Gomera edo Lanzarote-ra eramatea, atzerriratzea, ez al dago gure gaurko egoera kulturalaren eta gizartearen eskubide guzien aurka? Eta, gainera, inoren mesederako balitz, baina beste herrialdeetatik honera datozenak ere ez datoz guregana pozik.

Madrid, oraindik, gaur ere, itxu-itxuan ari da.  
Noiz arte?